URAK (laburpena)

Ibaiekin lotutako kontzeptuak. Aukeratu termino egokia beheko taulatik.

- Ibai batek daraman ur kantitatea: (**1**).....
- Euria egiten duenean soilik eramaten dute ura: (**2**).....
- Ibaia jaiotzen den tokia: (**3**).....
- Euri-jasen edota elurra urtzearen ondorioz ibai baten emariak bat-batean gora egitean sortzen da: (**4**).....
- Ibai baten emari txikiena: (**5**).....
- Ibai baten ibilbidearen amaiera: (**6**).....
- Gutxi aldatzen den emaria: (**7**).....

1	ibilgua	arroa	emaria
2	agorraldiak	euri-bideak	estuarioak
3	sorburua	bokalea	uadia
4	uharra	uholdea	uadia
5	uadia	agorraldiak	euri-bideak
6	bokalea	delta	estuarioa
7	gehieneko emaria	emari erregularra	emari irregularra

Hutsuneak bete:

Urak bi taldetan banatzen dira: (**8**)..... urak eta kontinenteetako urak. Azken horiek azaleko urak eta (**9**)..... izeneko beste bi multzotan sailkatzen dira.

(**10**)..... deritzo (**11**)..... izeneko lur-eremu batean zehar doan (**12**)..... ur-lasterrari.

Ibaia sortzen den lekuari (**13**)..... esaten zaio. Ibaia amaitzen den lekuari, berriz, (**14**)..... . Ibai batek egiten duen bideari (**15**)..... deritzo.

Bere urak beste ibai batera isurtzen dituen ibaiak (**16**)..... izena jasotzen du. Ibai nagusiak eta horren ibaiadar guztiek hartzen duten lur-eremuari (**17**)..... esaten zaio.

Ibai baten ibilbidean hiru zati bereizten dira:

(**18**)..... : sorburua eta ibilbidearen lehen kilometroak hartzen ditu.

(**19**)..... : malda txikiagoko lur-eremuak zeharkatzen ditu; bidean, (**20**)..... sortzen dira.

(**21**)..... : (**22**)..... handiagoa du, (**23**)..... urak ere biltzen baititu.

Ibai batek daraman ur kantitateari (**24**)..... deritzo. Kantitate hori bat-batean areagotzen bada, (**25**)..... sor daitezke. Ibai baten emari txikienari, aldiz, (**26**)..... deritzo.

(**27**)..... kontinente barruko lur-eremuetan sortzen diren ur multzo iraunkorrak dira. Txikia baldin bada (**28**)..... esaten zaio, eta ur gazia izanez gero, berriz, (**29**)..... . Agorraldian, urmaelak ia guztiz lehortzen direnean, (**30**)..... eratzen dira.

(**31**)..... esaten zaie gainazalaren azpitik joaten diren urei. Ura poltsetan pilatzen denean, (**32**)..... sortzen dira, eta (**33**)..... eraikitzen ditugu ur-erreserba horiek ateratzeko.

(**34**)..... ozeanoetan dabiltzan ur-masa handiak dira. Itsas uren beste mugimendu batzuk (**35**)..... eta (**36**)..... dira, hau da, itsas-mailaren igoerak eta jaitsierak, eta (**37**)..... itsasoaren gainazalean eragiten dituen uhindurak, hurrenez hurren.